

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure proiektua aurrera eramateko hurrengo jarduerak funtsezkoak iruditzen zaizkigu:

-**Entrenatzea**, astean birritan entrenatuko dugu Leioako polikiroldegi berrian. Entrenamendu hauetan partiduak prestatzeko erabiliko ditugu eta gure jokalarien teknika hobetzeko. Prestatuko ditugun entrenamenduak ez dira oso gogorak izango gure jokalarien poztasuna bilatzen dugulako eta ez dugu nahi gure jokalariak desmotibatuta edo aspertuta egotea.

- **Gure taldea eta partiduak ezagutaraztea**, gure taldea berria denez jendearen artean eta futbolzaleen artean hedatu behar dugu. Horretarako kaletik txostenak jarriko ditugu jendeak ikusi dezan eta bezeroentzako telefono zerbitzu bat jarriko dugu norbaitek informazio gehiago jakin nahi badu. Gainera Instagram eta Twitter kontu bat sortuko dugu taldearen berriak argitaratzeko eta oihartzun handiagoa lortzeko. Partidu egunetan argazki bat jarriko dugu sare sozialetan jende etortzeko taldea animatzera.

Honetaz aparte, Haszten erakundearekin elkarlanean arituko gara eta haien bitartez ere ezagutarazten saiatuko gara. Massimo Gutì enpresa gure arroparen patrozinatzailea da, ondorioz, enpresa honen bitartez ere ezagutu ahalko gaituzte.

- **Taldearen finantziaketa**, taldearen gastuak eta sarrerak kontrolatu beharko ditugu. Horretarako bulegoan egunero negozioaren egoera kudeatu eta kontrolatuko dugu arazorik ez egoteko.

